

XXIV. "Erretereria Hiri Ipuin Lehiaketa"ren ipuin irabazlea, 2004. Ipui honek ere 25 urte azpiko saria irabazi du. Ereintza Elkarteak antolatuta eta Erretereriako Udalaren babesarekin¹.

AMADEUS

Uxue Alberdi Estibaritz

Amadeusek bizikletak lapurtzen ditu 50 koroan.

Txikia zela ikasi zuen Amadeusek bizikletan ibiltzen, anaia zaharragoarekin, Danyrekin. Amadeusek pedalei eragiten zien, hasieran gutxi, pixka bat bakarririk, eta Danyk, esku zikinekin bizikletaren eserlekuari eusten zion anaiaren galtzak koipez zikintzen zituen bitartean. Bizikletari, bi anaiak bizi ziren Beirut hiriko auzo okreko aldapetan ere katea irteten baitzitzaion lantzean behin, batez ere, euria ari zuenean.

Hala esaten zuen Danyk, euria ari zuenean ateratzen zitzaiola beti katea bizikletari, kateak ere egarria baleuka bezala, eta aitak hiru aldiz egiten ziola errieta kateak egarria zuelako. Eskuak zikin-tzearren. Etxera goitik behera bustita iristearren. Anaiaren galtzak koipez lohitzearren.

Baina Amadeusek uste du berak ez zuela Danyrekin ikasi bizikletan ibiltzen. Danyrekin zegoenean erori egiten zen beti. Bidean harriak zeudelako batzuetan. Bizikletak ezkerretara balantza txiki bat egiten zuelako, gehienetan.

Amadeusek beti kontatzen du bere burua bizikleta eta guzti aldapa batetik behera bota zuenean ikasi zuela bizikletan ibiltzen. Atzetik galtzak kakaztuko zizkion inor gabe, bera bakar-bakarririk, aldapan behera. "Eta gure Libanoko bizikletak ez zuen balaztarik!", gehitzen du beti harro, paparra aterata.

Hain jaitsi zuen azkar aldapa Amadeusek, bidean betiko harri berberak egon arren, bizikletaren gurpilek ukitu ere ez zituzten egin. Hori dio berak serio. Bizikleta berez gelditu zenean gelditu zela Amadeus bera ere, berez, eta egun hartan esan omen zuen etxean "badakit bizikletan ibiltzen, ia hegazkinak bezain azkar".

Danyk barre egin ohi du holakoetan.

Balaztarik gabeko bizikleta herdoilduan egin zuen Amadeusek Beirutetik Kopenhagerako bidaia ere, ezkerretara balantza txiki batekin. 19 urte zituen orduan. Irakasle batek Beiruteko eskolara bidalitako postal batean irakurri zuen Amadeusek Kopenhage bizikletaz beteta zegoela, eta postaleko argazkian egiaztatu ahal izan zuen gero. Egun hartan erabaki zuen Kopenhagen bizikletak konpontzeko tailer bat irekiko zuela. Negozio ona behar zuen izan.


Gorriak eta beltzak ziren Kopenhageko bizikleta gehienak, eta ez marroiak, berea bezala. Askok, gainera, otartxoak zituzten aurrean, ogia-eta, liburuak-eta eramateko. Hala imajinatzen zuen Amadeusek Kopenhage: jende ilehoria bizikleta gorri eta beltzetan, eta otarretan, ogia eta liburuak.

Baina Kopenhagera iritsi zenean oker zebilela konturatu zen. Bizikleta berdeak ere bazeuden, eta



Antoni Miro

¹ Epaimahia: Juan Gartzia jaunak eta Amaia Apalauza andereak osatu zuten.



urdinak. Arroxak ere bai. Eta haien gainean jende ilehoria zebilen hara eta hona. Azkar eta poliki. Eta otarretan denetik zeramaten. Ogia gutxik, hortaz konturatu zen Amadeus, ogi gutxi jan behar zuela jende ilehoriak. Dena den, inportanteena egia zen: Kopenhage bizikletaz beteta zegoen.

Ordu batzuk behar izan zituen Amadeusek tailerra irekitzea uste baino zailagoa izango zela konturatzeko. Koka-kola bategatik gainean zuen diru gutzia kendu ziotenean konturatu zen behar-bada. Hiri hartako ilehoriak, ilehoriak izateaz gain, arropa garestiegiak zeramatzatela ikusi zutenean, agian. Edo gainerako jendea baino beltzaranagoa zen gizon batek ingelesez "bizikleta hura lapurtzen badidazu, 50 koroa emango dizkizut" esan zionean, segur aski.

Hala lapurtu zuen lehenengo bizikleta Amadeusek, kasualitatez. Kopenhagera iritsi eta bi ordura.

Gorria zen bizikleta, Megabike markakoa. Irakaslearen postalean ondoen ikusten zenaren modukoa, bere otartxo eta guzti. Geroztik, beltzak, berdeak eta urdinak ere lapurtu ditu. Arroxak ere bai. Beti 50 koroan. Ez du inoiz lapurretaren prezioa garestitu. Ez zaio okurritu. Hori bai, noizean behin deskontuak eta horrelakoak egiten ditu, eskaparateetako arropak aldatzen direnean-eta, haizeak iparretik jotzen duen egunetan-eta. Adibidez esaten die turistei "ikusten duzu horko bizikleta beltz hori? Izugarriko distira duen hori? Ba, nahi baduzu, dohainik lapurtuko dizut, zurekin eta bizikletarekin argazki bat ateratzen uzten badidazu". Eta adibidez joaten da, lapurtzen du bizikleta eta turista emazteak argazkitxo bat egiten die turista senarrari eta Amadeusi. Normalean irribarretsu ateratzen dira argazkian. Turistak begiak ohi baino pixka bat gehiago zabaldua igual.

Ez dio beldurrik ematen Amadeusi bizikletak lapurtzeak. Egia esan, oso gauza gutxiren beldur da Amadeus Beiruteko aldapa handi hartatik bere burua bizikleta eta guzti bota zuenetik. Txikitan bai, txikitan beldur handiena inurriei zien. Berak dio sartzen zituela ahoan kakarraldoak eta jartzen zituela ilean sugandilak; baina inurriei panikoa zien. Pentsatzen zuen barrura sartuko zitzaizkiola, surdurzuloetatik-eta, belarrietatik-eta, eta jan egingo zutela gero barrutik, poliki-poliki. Gibela, bihotza eta begiak ere bai. Txikitan bai, txikitan bazuen beldur bat Amadeusek, baina orain ez, lurrean inurriak ikusten dituenen badaezpada zapaldu egiten dituen arren.

Horregatik jartzen da agian Amadeus beti zuhaitzetatik urrun bizikletak lapurtzeko. Horregatik,

eta zuhaitzak dauden lekuan normalean parkeak eta terrazak egoten direlako. Edo parkeak eta terrazak dauden lekuan, zuhaitzak, bestela. Eta parke eta terrazetan, inurriak egoteaz gain, jendea egon ohi da eserita bizikletetatik gertu. Deskuidatzen bazara betertzetik bizikleta bigilatuz ere bai mesfidatiren bat. Eta horregatik ez ditu gustuko Amadeusek horrelako lekuak. Zeren agian joan zaitezke disimulu handiz giltzarraporik gabeko bizikleta baten ingurura, jo deza-kezu txistua bidean oharkabea hobeto pasatzeko, baina bizikletaren eskulekuan hatz bat jarri orduko entzungo duzu "lapurra!", eta ikusiko duzu ilehori bat zure atzetik korrika. Eta deskuidatzen bazara, igual polizia bokazioko inurriren bat ere bai. Nork daki, denetik dago munduan. Eta inurriak bai, inurriak errespetua ematen dio Amadeusi, berak gaindituta duela esaten duen arren.

Horregatik, zubietan jartzen da normalean Amadeus. Zubietan inurri gutxi egoten da, eta jabe despistatudun bizikleta asko. Zubietako bizikleten jabeak inguruko dendetan egoten dira bonbillak eta azenarioak erosten, eta mandaturen bat egiten, bestela, posta bulegoan edo bankuan. Begi gutxi egoten da bizikletei begira. Gainera, beste gauza inportante bat ere badute zubiek: turistei ikaragarri gustatzen zaizkie. Esaten dute "ze garaitakoa ote da" edo "noraino iritsiko ote da azpitik doan ibaia". Batzuei amuarrainik egongo ote den galde-tzen ere entzun izan die Amadeusek.

Eta turistak, noski, inportanteak dira oso negozioarako. Haiek eskatzen baitute bizikletak lapurtzeko, eta zuk eskaini ezker ere, aurpegiko bi gihar baino gehiago mugitzen ez dituzten bakarrak dira, eta hori, begiak pixka bat zabaltzeko normalean. Lurralde ezezaguneko ohitura dela pentsatzen dutelako eta hirian bizikleta propiorik ez dutelako uste du Amadeusek turistek ez dutela erreakzionatzen turistek, edo erreakzionatzekotan, pixka bat bakarrik. Ze zuk esaten badiozu kopenhagetar bati ea beretzat bizikleta bat lapurtzea nahi duzun, haserretu egingo da seguruenera, eta arrazoi osoz, hurrena agian berari lapurtuko baitiozu. Kasualitate handia litzatekeen arren, ze, egia esan, Kopenhagen bizikleta asko dago.

Baina turistekin ez da horrelakorik gertatzen. Amadeusek uste du bidaia liburu eta gidetan ere azaltzen dutela bere negozioaren berri. Eta pentsatzen du zorte handiko mutila dela, zorte handia duela arabiar arrazakoa izatearren. Izan ere, badiu bizikleta-lapur lagun ilehoriak ere, baina haiek ez dute lanik izaten, turista batek ez diolako inoiz ilehori bati bizikleta bat

lapurtzeko eskatuko. Arabiarra-edo behar du izan, edo pixkat beltzagoa bestela, azalez.

Lantzean-lantzean bizikleta eleganteenen argazkiak bidaltzen ditu Amadeusek etxera, Beiruteko auzo okrera. Gehienak gorriak eta beltzak izan ohi dira, Sirrusak-eta, Crossrode-ak-eta. "Honi errubarak aldatu nizkion" jartzen du argazki batzuen atzean, edo "honi pintura eman eta balaztak konpondu nizkion", eta balaztak aipatzen ditueneko, gehitzen du "Izan ere, hemen bizikletek balaztak ditziztek, Dany!". Eta argazkietan Amadeus bera ere azaldu ohi da gehienetan, irribarretsu eta bezeroei besoa lepo gainetik pasata. Zorionsua dirudi.

Danyk dio egingo diola bisita laster, eta Amadeusek baietz, nahi duenean, erakutsiko dizkiola tailerra-eta.

Horrela bizi da Amadeus gutxi gorabehera. Gauetan bizikletaz joan ohi da etxera, ezkerretara balantza txiki batekin, eta normalean ez da bizi den atariaren parean gelditzen. Metro batzuk gehiago egin ohi ditu aurrera, eta orduan gelditzen da, aldatxoak bizikleta gelditzen duenean, berez.

Gero bi giltzarrapo jartzen dizkio bizikletari. Badaezpada.

CURRICULUM VITAE

NORBERAREN DATUAK

Izen-abizenak: Uxue Alberdi Estibaritz

Jaioterria: Elgoibar

Jaioteguna: 1984-03-18

SARIAK

- 1996, 1997 eta 1998an Elgoibarko "Etxegina" bertsopaper lehiaketetan 1. saria.
- Azkoitiko "Xabier Munibe" bertsopaper lehiaketan 3. saria 1999n eta 1. saria. 2000an
- "R.M. Azkue"-n 2. saria. 2000
- Gipuzkoako eskolarteko bertsolari lehiaketan (bertsopaperetan) txapela (2001 eta 2002an)
- Mutrikuko "Okelar" bertsopaper lehiaketan 2. saria. 2001
- "Elgoibarko Izarra" idaz lehiaketan 1.saria. 2001
- "Eibar Hiria" literatur lehiaketan 2. saria 2002an eta 1. saria 2003ab.
- Ordiziako "Lazkao Txiki" bertso paper lehiaketan 3. saria
- Soraluzeko "Matxintxu" bertsopaper lehiaketan txapela. 2002
- Bergarako maitasun gutunen lehiaketan 2. saria eta irakurle gazteek emandako saria. 2003
- Errenteriako maitasun gutunen lehiaketan 1. saria. 2003
- Durangoko "Julene Azpeitia" literatur lehiaketan, bertso paperetan 1.saria. 2003
- Zestoako Erralla bertso eskolak antolatutako sariketan txapela. 2003
- Bergarako Maitasun gutunen lehiaketan 2. saria. 2004
- Beasaingo neguko bertsopaper lehiaketan 1. saria. 2004

BEKAK

- ERASMUS beka. Kazetaritzako 3. maila Suedian, Karlstad-eko unibertsitatean.